



Gizarte Eraldaketarako
Hezkuntzaren
V. Biltzarra

*Ziurgabetasunaren aurrean,
hezkuntza askatzailea*

Europa Biltzar Jauregia, Vitoria-Gasteiz
2021eko azaroaren 18, 19 eta 20an



Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren V. Biltzarra

Ziurgabetasunaren aurrean, hezkuntza askatzailea

2021eko azaroaren 18an, 19an eta 20an Europa Biltzar Jauregian, Vitoria-Gasteiz

www.congresoed.org

2021eko azaroaren 18an, 19an eta 20an Gasteizen egingo den *V. Biltzarra: Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza. Ziurgabetasun askatzailean heztea* biltzarraren testuinguruan, komunikazioak aurkezteko dei hau egiten diegu, biltzarraren edizio hau egituratzen duten Ildo Estrategikoak ardatz hartuta, hausnarketa kolektiboaren prozesuan laguntzeko interesa duten pertsoneri.

Bosgarren edizio honen aurretik, elkertasuneko eta nazioarteko lankidetzako mugimenduak ia hogeita hamar urteko ibilbidea du egina hezkuntza-jardueraren alorrean. Alor hori *Garapenerako Hezkuntza (GH)* gisa kontzeptualizatzen da eta lau biltzar izan ditu aurretik (azkenekoa 2014an)¹. V. biltzarrak, ordea, beste ikuspegi bat du oinarrian: *Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza (GEH)*.

Biltzar horrek eraikuntza-prozesu kolektibo baten alde egin du, eta duela urtebete ekin zion bideari, aldeztu aurretik lau topaketa antolatuz. Bilbon antolatutako aurrez aurreko lehen topaketan, *mugimendu feministen eta lankidetzaren eraldatzailearen mugimenduaren esperientziei* buruz hausnartu genuen. Covid-19ak eragindako pandemiaren ondorioz, Galizian, Madrilan eta Melillan egitea aurreikusitako hurrengo hiru topaketak formatu birtualera egokitu behar izan genituen. Ildo horretatik, topaketa bakoitzean lurraldearekin lotura duten erakundeek, kolektiboek eta gizarte-mugimenduek hartu zuten parte. Galiziako topaketak gai hau izan zuen ardatz: *ikuspegi ekosoziala, landa-eremuak bizitzeko lurralde gisa*. Madrilgo topaketa gai honen inguruan egituratu zen: *auzo-elkarteak eta autokudeaketa-esperientziak, hirian bizi daitekeen bizitzaren beste begirada bat*. Azkenik, Melillako topaketak gai hau jorratu zuen: *Hegoaldeko muga, migratuen eta errefuxiatuen eskubideak*².

Topaketa bakoitzean jorratutako gaiak estrategikoki aukeratu ziren, lurraldearen arabera eta prozesuarekin bat egindako erakundeen eta kolektiboaren potentzial kritikoaren arabera. Lanerako eta artikulaziorako gune horien bitartez, haien esperientziatik ikasi nahi izan genuen, hezkuntza kritikoaren proposamenarekin

¹ Aurreko biltzarrei buruzko informazio gehiago: <https://www.congresoed.org/vcongreso/genealogia/>

² Lurralde-topaketetako edukiak eskuragarri daude V. biltzarraren web-orrian: <https://www.congresoed.org/documentacion/encuentros-territoriales/>



uztartzeko eta V. biltzarra definitu ahal izateko elementu estrategikoetan aurrera egiteko.

Hortaz, komunikazioak aurkezteko deiak ekarpenak egitera gonbidatzen ditu interesa duten pertsonak eta kolektiboak, beren esperientzia eta jakintzetatik abiatuta, *Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako* prozesuak emantzipazio-etorkizunari begira hornitu ditzaten. Garrantzitsua iruditzen zaigu azpimarratzea deialdi hau alor akademiko zein sozialeko pertsona, talde eta kolektibo guztiei zuzenduta dagoela.

1. KOMUNIKAZIOEN ARGITALPENA

Hautatutako komunikazioak formatu digitalean argitaratuko dira eta ISBN izango dute, *Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza. Ziurgabetasun askatzailean hezteari buruzko V. Biltzarrari* egindako ekarpen gisa. Egileek komunikazioa aurkeztu izanaren ziurtagiria jasoko dute.

Biltzarraren parte hartzeko eta eztabaidarako izaera dela-eta, ez dira komunikazioak ahoz aurkezteko guneak antolatuko. Hala eta guztiz ere, ekitaldian komunikazioen berri emango da eta webgunean argitaratuko dira.

2. ILDO ESTRATEGIKOAK

Proposatutako komunikazioek lotura izan beharko dute biltzar honetarako finkatutako lau Ildo Estrategikoetako batekin:

- 1. ildo estrategikoa: **Gorputzak eta lurraldeak**
- 2. ildo estrategikoa: **Komunitate-eraikuntza**
- 3. ildo estrategikoa: **Aurea hartzen duen ikaskuntza**
- 4. ildo estrategikoa: **Sareak, aliantzak eta bestelako komunikazioak**

Ildo estrategikoen deskribapena eskuragarri dago V. Biltzarraren webgunean:

www.congresoed.org/comunicaciones

3. BIDALKETA ETA HAUTAKETA

Komunikazioak aurkeztu nahi dituztenek izena eman beharko dute V. Biltzarrean, eta 2021eko ekainaren 25a baino lehen bidali beharko dute komunikazioaren proposamena, honako hauek jasoko dituen:

- a. Izenburua
- b. Komunikazioa zer ildo estrategikorekin lotuta dagoen
- c. Egilearen edo egileen izena
- d. Harremanetarako datuak: izena, telefonoa eta helbide elektronikoa (adierazi datu pertsonalak edo lanekoak diren)
- e. Laburpena (200 hitz gehienez, Times New Roman, 12 p., lerroarte arrunta)
- f. Orri-marjina estandarrek (2,5 cm)



[Webgunean](#) eskuragarri dagoen eredua erabiltzea gomendatzen dugu.

Laburpenak zein komunikazioak euskaraz, gaztelaniaz, katalanez edo galegoz bidali ahal izango dira.

Proposamenak formatu elektronikoa bidali beharko dira, ODT formatuan nagusiki OpenOffice-rekin (edo software libreko antzeko prozesadoreekin) sortutako dokumentuak direnean. Word-ekin egindako dokumentuak direnean, aldiz, DOC/DOCX edo antzeko formatuan igorriko dira.

Bidalketa helbide honetara egin beharko da posta elektronikoa bidez, gaien "Proposamena_izena eta abizenak" adierazita: educacion@hegoa.info

3.1. KOMUNIKAZIOEN ONARPENA

Onartutako komunikazioen zerrenda 2021eko uztailaren 2an argitaratuko da V. Biltzarraren webgunean.

Onartutako komunikazioen testua osorik bidali beharko da 2021eko irailaren 10a baino lehen, baldintza hauei jarraikiz:

- a. Derrigorrezkoa da [webgunean](#) eskuragarri dagoen eredua erabiltzea.
- b. 3.000 hitzeko gehieneko luzera. Tipografia: Times New Roman, 12 puntu. Lerroarte arrunta.
- c. Erantsi erreferentziak eta bibliografiak APA formatuan.

Behin betiko komunikazioak posta elektronikoa³ bidez bidali beharko dira helbide honetara gaien "Komunikazioa_izena eta abizenak" adierazita: educacion@hegoa.info

Beharrezkoa izanez gero, irailaren 30ean komunikazio osoen berrikuspenak bidaliko dira. Urriaren 10a izango da komunikazio osoak entregatzeko behin betiko data, berrikuspenak barne.

3.2. ARGITALPENA

Komunikazioen behin betiko argitalpena 2021eko urriaren 10etik aurrera egingo da.

4. ZALANTZAK ETA KONTSULTAK

Gurekin harremanetan jar zaitezke bide hauetatik:

Posta elektronikoa: educacion@hegoa.info
Telefonoa: 946 017 046 / 945 014 287

³ ODT formatuan nagusiki OpenOfficerekin (edo software libreko antzeko prozesadoreekin) sortutako dokumentuak direnean. Wordekin egindako dokumentuak direnean, aldiz, DOC/DOCX edo antzeko formatuan igorriko dira.